

## **IRAGARKIA, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzorderako kide bat izendatzeko deialdi publikoari buruzkoa**

2016ko irailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (177. zk.), Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko 2016ko irailaren 13ko 128/2016 Dekretua argitaratu zen. Dekretu horren xedea da aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen arloan aurreikusitako aurkaratze-araubidea aplikatuz.

Dekretu horretan ezartzen denez, “Batzordea hiru kidek osatuko dute: batzordeburuak, zeina Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren titularra izango baita; eta bi kidek, zeinek, aldi berean, idazkaritza ere hartuko baitute euren gain. Kide horiek autonomia-erkidegoko administrazio orokorreko karrerako funtzionarioak izango dira, eta Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak izendatuko ditu, deialdi publikoa egin ondoren”.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Gobernu Irekiko zuzendaria da Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen presidentea.

Halaber, 2016ko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak hau ezartzen du: “Batzordekideak diren funtzionarioen karguari datxezkion eginkizunek ez dute arduraldi eskusiboa ekarriko, haien lanpostuari dagozkion zereginak beteko dituzte txandaka, eta benetako lanalditzat hartuko da edonola ere. Batzordekide horiek ezartzen diren moduan eta baldintzetan jasoko dute ordainsaria, hartutako zereginengatik, jarduera egiteko erabilitako denboraren eta arduraldiaren arabera, baita aztertzen dituzten gaien kopuruaren arabera ere.”

Zenbatekoak [Gobernu Kontseiluaren 2018ko otsailaren 20ko Erabakiaren bidez zehaztu ziren, zeina Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kideek jaso beharreko konpentsazio ekonomikoari buruzkoa baita \(pdf, 100 kb\).](#)

Era berean, eta beren autonomiaren berme gisa, aipatutako dekretuak zehazten du aipatutako funtzionarioak lau urterako izendatuko direla, eta agintaldia amaitzeagatik edo lehendakariak dagokion prozedura instruitu ondoren baino ezin izango direla kargutik kendu, beren betebeharrak larriki ez betetzeagatik,

beren eginkizuna betetzeko ezintasun iraunkorragatik, gerora sortutako bateraezintasunagatik edo dolozko delituagatik kondenatzeagatik. Kideetako bat Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2016ko urriaren 6ko Aginduaren bidez izendatu zen. Agindu horren bidez, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kideak izendatu ziren eta batzordearen osaera argitaratu zen. Beraz, ezarritako epea igarota, izendapena amaitu egin da.

Interesdunek, zeinek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko goi-mailako kidegokoak izan behar baitute, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari zuzendu beharko dizkiote eskabideak, eta Eusko Jaurlaritzako Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu, 5 egun balioduneko epean, iragarki hau iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrekin batera, gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen arloan duten prestakuntza eta esperientzia egiaztatzen duen curriculuma ere aurkeztu beharko dute.

Izendapena Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez egingo da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agindu horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 9a

Erakunde Harremanetarako sailburuordea  
Jone Berriozabal Bóveda